- Mendebaldeko herrialde garatuetako nerabeetan gabezia garrantzitsurik ez
- Energiaren beharrak handitzean **tiamina** (B1), **erriboflabina** (B2) eta **niazina**ren (B3) beharrianak handitu egiten dira, karbohidratoen metabolismoan parte hartzen dutelako




3.3- Bitaminak

- **Kobalaminaren (B12), azido folikoaren** eta beharrizana handiagoa
 - DNAren eta RNAren sintesi egokia lortzeko
 - Azido folikoaren gabezia gibel eta hosto berdedun barazkiak ez jateagatik
- **Piridoxinaren (B6)** beharrizana handiagoa
 - Nerabezaroko gehiegizko aminoazidoen metabolismoa burutzeko (KOFAKTOREA)

3.3- Bitaminak



3.3- Bitaminak





3.3- Bitaminak

- LIPOSOLUGARRIAK:
 - A bitaminaren beharrezkotasuna gehien igotzen dena
 - A bitaminaren gabeziak ikusten dira gehien
 - D bitamina beharrezkoa kaltzioa zurgatzeko
 - A, E eta C (ez da liposolugarria) bitaminak zelula berrien egitura eta funtzioa mantentzeko

3.3- Bitaminak

	9 – 13 (urte)		14 – 18 (urte)	
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak
A bitamina (µg)	900	700	900	700
D bitamina (mg)	5	5	5	5
E bitamina (mg)	11	11	15	15
K bitamina (mg)	60	60	75	75
C bitamina (mg)	45	45	75	65
Tiamina (µg)	0,9	0,9	1,2	1,0
Erriboflabina (mg)	0,9	0,9	1,3	1,0
Niazina (mg)	12	12	16	14
B6 (mg)	1	1	1,3	1,2
Folato (µg)	300	300	400	400
B₁₂ (µg)	1,8	1,8	2,4	2,4
Pantotenato (mg)	4	4	5	5
Biotina (mg)	20	20	25	25

Aurkezten diren balio guztiak *Food and Nutrition Board*-ek 1989 urte artean argitaratuko RDAk eta 1997-1998 urteetako DRIak dira

3.3- Mineralak

	9 – 13 (urte)		14 – 18 (urte)	
	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak
Kaltzioa (mg)	1300	1300	1300	1300
Kuprea (µg)	700	700	890	890
Fluorra (mg)	2	2	3	3
Fosforoa (mg)	1250	1250	1250	1250
Burdina (mg)	12	15	12	15
Magnesioa (mg)	240	240	410	360
Manganesoa (mg)	1,9	1,6	2,2	1,6
Selenioa (µg)	40	40	55	55
Iodoa (µg)	150	150	150	150
Zinka (mg)	8	8	8	8

Mineralentzat eta oligoelementuentzat gomendatzen diren eguneroko ingestio dietetikoak (DRI) nerabeزارoan.



3.3- Mineralak

- Ca (hidroxiapatita minerala)
 - Hezurren mineralizazio maila neurtzeko orno lunbarren arteko distantzia kalkulatu (L2-L4)
 - Nerabezaroan hezur-mineralen dentsitatea 5 aldiz handitu
 - Mutiletan hezuraren hazkuntza eta loditze prozesua luzeagoa
 - 1300 mg/egun gomendio dietetikoa



3.3- Mineralak

- Hezurren mineralizazioan eragiten duten faktoreak
 - Proteina gehiegi hartzeak kaltzioaren iraizpena areagotu (zeharkako efektua)
 - Jarduera fisiko handiak gernuko kaltzio-galerak handitu ditzake. Egoera larriago bihurtu daiteke aminoazidoen edo proteinen gehigarriak erabiltzen badira




3.3- Mineralak

- Hezurren mineralizazioan eragiten duten faktoreak
 - Osteopenia izateko arriskua handiagoa
 - anorexia, bulimia, dieta hipokaloriko desorekatuak edo makrobiotikoak
 - Haurdunaldia edo edoskitzea nerabezaroan
 - Endokrinopatiak (diabetesa, GHaren gutxiegitasuna edo kortikoterapia luzatuek)

3.3- Mineralak

Mineralizazioa, hidroxiapatito (g/zm²)



L2-L4 orno lunbarren arteko dentsitate minerala 3 hilabeteko ume batean, Tanner-en aldi ezberdinetan eta 21 urteko gazteetan



3.3- Mineralak

- Fe beharrizana handitu
 - Hemoglobina kantitatea handitu
 - Muskuluen hazkuntzak mioglobina kantitatea areagotu
 - Neskek menarkia ostean mutilek baino Fe beharrizan handiagoa



3.3- Mineralak

- Zn beharrizana handitu
 - Koentzima
 - Gabeziak
 - Hazkuntzaren atzerapena, hipogonadismoa eta dastamenaren alterazioak
 - Landarejaleen artean gabezia ohikoagoa



3.4- Dieta egokia nerabezeroan

- Gomendioak
 - Aniztasuna
 - Ingestioaren eta jardueraren arteko oreka mantentzea
 - Dieta zerealetan, barazkitan eta frutatan aberatsa izatea
 - Dieta gantz asetan mugatua eta gantz gutxikoa izatea
 - Dietak kaltzioaren eta burdinaren beharrizanak beteko ditu



3.4- Dieta egokia nerabezaroan

- **Koipeak, olioak eta fruitu lehorrak**
 - Energiaren % 30
 - 2.200 kcal/egun
 - 73 g/egun
 - Gantz aseek energiaren < %10
 - Haragietan, esnekietan, koko eta palma olioak



3.4- Dieta egokia nerabezaroan

- **Koipeak, olioak eta fruitu lehorrak**
 - Haragietan giharrak erabili, eta esnekiak gaingabetuak edo erdigaingabetuak
 - Landare-jatorriko olioak (asegabeak) hautatu, bereziki oliba-olioa
 - Elikagaien etiketei begiratu, eskuratzen duten lipido mota eta kantitatea ezagutzeko
 - Azukre sinpletan eta lipidotan aberatsak diren elikagaien ingestioa mugatu. Hau da, gozokiak, opilak eta abar, noizbehinka baino ez dira agertuko dietan
 - Gantz asetan aberatsak diren elikagaien ingestioa mugatua izango da: hestekiak, erraiak, eta abar...



3.4- Dieta egokia nerabezarotan

- **Esnea eta esnekiak**
 - 4 ano/egun
 - Ca beharrezarena heltzeko ezinbesteko
 - Balio biologiko altuko proteinak, bitaminak eta mineralak



3.4- Dieta egokia nerabezeroan

- **Haragia, arraina eta arraultzak**
 - Proteinak
 - B taldeko bitaminak, burdina eta zinka
 - 2-3 ano/egun = 150-210 g/egun
 - Astean gehienez 3 arraultza

3.4- Dieta egokia nerabezarroan



ELIKADURA ETA DIETETIKA NERABEZAROAN



4- ELIKADURA ARAZOAK NERABEZAROAN



4.1- Elikatzeko ohitura ez konbentzionalak

- **Janari-patroiaren irregulartasuna** (aldaketa psikobiologikoak)
 - Beharrik gabe argaltzeko dietak
 - Eguneko otorduren bat ezabatu (sarritan gosaria)
 - Kaltzioa eta karbohidrato konplexuak lortzeko beharrezkoa
 - Ogitarteko eta opil gehiegi
 - Ezarritako otorduetatik kanpo jan, batik bat goiz erdian
 - Janari azkarrak edo “eramatekoak” ugari kontsumitu
 - Alkohola kontsumitzen hasi
 - Osasuna
 - Auto-istripuak
 - Edari freskagarriak kontsumitu eta esnea baztertu.
 - Gustuari buruzko nahiak eta gorrotoak nabarmen aldatu



4.1- Elikatzeko ohitura ez konbentzionalak

- **Gizarteak nerabeei kalte egiten dieten mezuak:**
 - Dieta osasungarri eta orekatuen aldeko mezuak
 - Energia gutxiko dietak jarraitzea aholkatzen da
 - Onuragarriak ez diren elikagai askoren kontsumora bultzatzen duten iragarki ugari
 - “Fast food” (hanburbesak...)



4.1- Elikatzeko ohitura ez konbentzionalak

- **Alkoholaren kontsumoa:**
 - 14-20 urteko gazteak (Donostiako eskolak)
 - % 52k alkohola hartu asteburuetan
 - % 9k lanegunetan
 - Mutilak
 - % 12k egunero hartzen du alkohola
 - 17-18 urterekin portzentaia altuena
 - Mutilen % 73k
 - Nesken % 60k



4.1- Elikatzeko ohitura ez konbentzionalak

- **Alkoholaren kontsumoa:**
 - Gogokoen dituzten edariak:
 - 1. Garagardoa
 - 2. Likor eta ferskagarrien konbinatuak
 - 3. Ardoa
 - Profila:
 - Asteburuko edale neurrigabea
 - Lagunekin batuta
 - Estatu espainiarreko ikerketa batean
 - 16 urte baino gehiagoko gazteen %67,4 ohiko kontsumitzailea



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **Obesitatea jasateko beldurraren sindromea (Pugliese 1983)**
 - Nerbio-Anorexiaren antzeko sintomak
 - Gorputz-pisu txikia
 - Garapen sexualaren atzerapena
 - Ingestaren murrizketa
 - Bigarren mailako malnutrizioa
 - Pisua hartzeko beldurra



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **Obesitatea jasateko beldurraren sindromea (Pugliese 1983)**
 - Nerbio-Anorexiarekiko ezberdinak diren sintomak
 - Ez dago gorputz-itxuraren distortsiorik
 - Ez dute botaka egiten
 - Ez dute laxanterik hartzen
 - Mutil eta nesketan prebalentzia berdina
 - Nerbio-anorexia baino goizago hasi



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **Obesitatea jasateko beldurraren sindromea (Pugliese 1983)**
 - Garrantzitsua zehaztasunez identifikatzea
 - Fisiopatologia eta tratamendua ezberdinak dira
 - Dieta hipokalorikoak jarraitzen dituzte
 - Argal mantentzeari garrantzi handia
 - Pisu egokia baino baxuago mantrentzen dira
 - Pubertaroko behar energetikoak eta nutritiboak ez dituzte betetzen



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **Beste elikadura aztoratze azpikliniko batzuk ere ohikoak dira**
 - Kirolariaren anorexia
 - Polifagia
 - ...
 - **PREBALENTZIA OSO ALTUA**



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **NERBIO-ANOREXIA**
 - Elikadura portaera aztoratuta
 - Borondatezko ingesta murrizketa luzeak
 - Gorputz-itxuraren pertzepzioa aztoratuta
 - Malnutrizio kroniko larria
 - Heriotza-tasa %5



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

■ **NERBIO-ANOREXIA**

- Irizpide diagnostikoa ondo definitua dago
 - Anorexia diagnostikatzeko alterazio guztiak batera agertu behar dira (OME)
 - Pisu-galera nabariak ($GMI < 17,5$). Pubertaro aurreko adinakoetan, aldi fisiologiko horretan gertatzen den pisu-handitzea ez gauzatzea.
 - Gaixoak eragiten ditu pisu-galerak estrategia hauen bitartez:
 - a) dentsitate energetiko handiko elikagaiak ukatu
 - b) sintoma hauetako bat edo gehiago agertzen direnean: norberak eragindako goitikoak, gehiegizko jarduera fisikoa, farmako anorexigenikoak edo diuretikoak hartzea



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **NERBIO-ANOREXIA**

- Irizpide diagnostikoa ondo definitua dago
 - Anorexia diagnostikatzeko alterazio guztiak batera agertu behar dira (OME).
 - Gorputz-itxuraren distortsioa
 - Arazo endokrino orokorra (hipotalamo-hipofisi-gonada ardatza aldatua)
 - Anorexia pubertaroaren aurrekoa denean, atzeratu edo desagertu egiten da nerabezaroaren seinale biologikoen segida



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **NERBIO-ANOREXIA**
 - Ikerketa epidemiologikoak
 - % 90-95 emakumeak dira
 - Mutiletan prebalentzia handituz
 - Azken 5 urteetan mutilen artean anorexiaren sarritasuna % 8-11 handitu
 - Kasuen %25-30 pubertaro aurreko garaian
 - Prebalentzia maximoa 13-18 urte bitartean



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **NERBIO-BULIMIA**
 - Ingesta konpultsiboa
 - Ondoren autoeragindako goitikoa
 - Malnutrizioa garrantzitsua izan arren ez da nerbio-anorexian bezain larria
 - Oso arraroak pubertaroa baino lehen agertzen diren kasuak



4.2- Elikadura jokaeraren aztoratzea

- **NERBIO-BULIMIA**

- Irizpide diagnostikoa (OME)
 - Janariagatiko kezkatze iraunkorra
 - Eutsi ezinezko jateko desioa
 - Polifagia (janari kopuru handiak hartzen ditu oso denboraldi laburretan)
 - Gehiegizko ingestioak ekiditeko metodoak erabili:
 - autoeragindako goitikoak
 - Laxanteen gehiegizko erabilera
 - Baraualdiak
 - Farmakoen erabilera (anorexigenikoak, diuretikoak)
 - Paziante diabetikoek intsulina hartzeari uzten diote
 - Psikopatologiaren ikuspuntutik, bulimiak loditzeko beldurrean du oinarria
 - Askotan, ez beti, aurretiaz nerbio-anorexia izan



Heldu osasuntsuaren dietetika eta nutrizioa

10. GAIA

- DIETETIKA OROKORRA ETA APLIKATUA
 - Giza Elikadura eta Nutrizioko Gradua
 - 3. kurtsoa



10. GAIA: HELDU OSASUNTSUAREN DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

- **1- SARRERA**
- **2- ALDAKETA FISIOLÓGIKOAK**
- **3- ENERGIA**
- **4- MAKRONUTRIENTEAK**
 - **4.1- Lipidoak helduaren nutrizioan**
 - 4.1.1- Lipido aseak, *trans* gantz-azidoak eta kolesterola
 - 4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak
 - **4.2- Karbohidratoak helduaren nutrizioan**
 - **4.3- Proteinak helduaren nutrizioan**
- **5. MIKRONUTRIENTEAK**
 - **5.1- Sodioa, potasioa eta gaixotasun kardiobaskularra**
 - **5.2- Burdinaren ingestioa**
 - **5.3- Azido folikoaren ingestioa**
 - **5.4- Iodoaren ingestioa**
 - **5.5- Kaltzioaren eta D bitaminaren ingestioa**
 - **5.6- Antioxidatzaileen ingestioa**
 - **5.7- Beste osagai nutrizionalak**

HELDU OSASUNTSUAREN DIETETIKA ETA NUTRIZIOA



1- SARRERA



IKASGAIAREN HELBURUAK

- 1- Dieta osasuntsuaren oinarriak ezagutzea
- 2- Gastu energetikoaren osagaiak eta adinarekin gertatzen den eboluzioa ezagutzea
- 3- Populazio helduarentzat ematen diren gomendio dietetikoak eta nutrizio helburuak azaltzea
- 4- Mendebaldeko populazioetan agertzen diren gaixotasun kronikoekin erlazioa duten ohitura dietetikoak azaltzea eta aurrezaintzeko ematen diren gomendio nutrizionalak eta dietetikoak ezagutzea



1- SARRERA

- Herrialde garatuetan azken mendean bizi-itxaropena nabarmen handitu
- Hala ere, ohitura dietetiko eta elikadura desegokiaren eta sedentarismoaren eraginpean dauden gaixotasun askoren prebalentzia handitu egin da
 - Diabetesa
 - Obesitatea
 - Hipertentsio arteriala (gatz gehiegi)
 - Osteoporosia
 - Gaixotasun kardiobaskularrak (gantz azido asetu gehiegi)
 - Zenbait minbizi eta endekapenezko eritasun



1- SARRERA

- Dena den, badaude ohitura dietetiko eta ariketa fisiko maila egokia duten gaixoak
 - PREDISPOSIZIO GENETIKOA
 - INGURUMENAREKIN ERLAZIOAK ERE GAIXOTASUNETAN ERAGIN
- Gabezia nutrizionalengatik estatu espainiarrean gaur egun ere badaude gaixotasunak
 - Iodo faltagatik golo endemikoa
 - Anemia ferropenikoa zenbait adin taldetan



1- SARRERA

- **25-55 URTE BITARTEKO
DIETETIKA ETA ELIKADURA
AZTERTUKO DUGU**

HELDU OSASUNTSUAREN DIETETIKA ETA NUTRIZIOA



2- ALDAKETA FISIOLOGIKOAK



Gorputz konposaketaren aldaketa

- Masa muskularraren galera mantsoa
 - Gorputz pisua handitu
 - Gihar-masa portzentaia jaisten piskanaka
 - Gantz-biltegien portzentaia igo piskanaka
 - Gizonezkoan lehenago
 - Emakumeek menopausiara arte gihar-masa mantendu

Gorputz konposaketaren aldaketa

Talde fisiologikoa	Gorputz-pisua (kg)	GM (kg)	GM (%)	MA (%)
Ume edoskitzailea	3,4	2,9	85	15
Haurra				
Mutila	31	27	87	13
Neska	32	26	81	19
Nerabea				
Mutila	60	51	86	14
Neska	54	40	74	26
Heldua				
Gizona	72	61	85	15
Emakumea	58	42	72	28

Gorputz-pisuaren, gihar-masaren (GM) eta masa adiposoaren (MA) batezbestekoak adinaren eta sexuaren arabera

HELDU OSASUNTSUAREN DIETETIKA ETA NUTRIZIOA



3- ENERGIA



3- ENERGIA

- GASTU ENERGETIKOKO ALDAGAIAK
 - Oinarrizko metabolismoa
 - Jarduera fisikoa
 - Elikagaien Efektu Energetikoa



3.1- Oinarrizko metabolismoan eragiten duten aldagaiak

- **Gorputz-tamaina**
- **Gorputz-azalera**
 - Organoen tamaina handitzen denean, oinarrizko metabolismoa ere handitzen da

3.1- Oinarrizko metabolismoan eragiten duten aldagaiak

Organoa	Pisua (kg)	Gorputz-pisuaren portzentajea	OMaren portzentajea
Gibela	1,5	2,1	26,4
Nerbio-sistema	1,4	2,0	18,3
Bihotza	0,3	0,43	9,2
Giltzurrunak	0,3	0,43	7,2
Azpiemaitza	3,5	4,96	61,1
Muskulu eskeletikoa	27,8	39,7	25,6
Guztira	31,3	44,66	86,7

Helduaren organo eta ehunen kontribuzio-portzentajea oinarrizko metabolismoan (OM)



3.1- Oinarrizko metabolismoan eragiten duten aldagaiak

- SEXUA ETA GORPUTZ-KONPOSAKETA
 - Gizonezkoak gihar-masa portzentaia altuagoa %85 > %72
 - Gizonezkoak gihar-masa portzentaia altuagoa
 - 60 kg gizonezkoaren OM = 67,4 kcal/min/m²
 - 60 kg emakumezkoaren OM = 61,6 Kcal/min/m²



3.1- Oinarrizko metabolismoan eragiten duten aldagaiak

- ADINA

- 20 urtetik aurrera hamarkada bakoitzeko %3-5 jaitsi
- Haurtzaroan masa zelularren jarduera eta gorputz-tenperatura mantentzeko OM altua
- Zahartzaroan masa muskularra galdu
- 70 urterekin bizitzaren lehenengo hamarkadako beharren 2/3



3.1- Oinarrizko metabolismoan eragiten duten aldagaiak

- HAURDUNALDIA ETA EDOSKITZEA
 - Haurdunaldiaren akenengo bi hiruhilekoetan OM igo
 - Umearen eta amaren ehunen tamaina handitu
 - Edoskitzaroan esne-ekoizpenaren gastuak OM handitu
- BESTE FAKTORE BATZUK
 - Egoera hormonalak, sukarra, farmakoak...



3.2- Jarduera fisikoan eragiten duten aldagaiak

- Gastu energetikoaren %15-30
 - Jarduera motaren menpe
- Gorputz-pisua zenbat eta handiago gorputza mugitzeko egindako gastua handiagoa
 - Obesitatean kontutan izan gantz-masa portzentaia altua
 - Gastu energetikoa gorputz kg-ko txikiagoa
- Adinarekin jarduera fisikoa murriztu



3.3- Elikagaien efektu energetikoa

- Eskakizun energetikoa (OME)
 - “Gastu energetikoarekin orekan dagoen elikagai-jatorriko energia kantitatea, epe luzera egoera osasuntsuarekin lotzen diren pisua, garaiera, gorputz-osaera eta jarduera fisikoa mantenduko dituen”
 - Azken urteetan GMI (kg/m^2) aukeratu da gorputz-pisuak epe luzean izan dezakeen erikortasuna adierazteko (18-25)



GASTU ENERGETIKOKO OSAGAIEN KALKULUA

$$GE = OGE \text{ (GEren \% 60-70)} + EET \text{ (GEren \%10)} + JFGE \text{ (GEren \% 15-30)}$$

GE: gastu energetikoa

OGE: oinarrizko gastu energetikoa

EET: elikagaien efektu energetikoa

JFGE: jarduera fisikoaren gastu energetikoa



OINARRIZKO GASTU ENERGETIKOAREN KALKULUA

- Atsedenean eta baraualdian kontsumitzen den energia
 - Zelulen eta ehunen prozesu metabolikoak
 - Zirkulazioa
 - Arnasketa
 - Giltzurrunen eta sistema gastrointestinalaren funtzionamendua
- 24 ordura estrapolatzen denean (elikagaien ingestioa ere kontutan) ATSEDENEKO GASTU ENERGETIKOA (AGE) deritzo



OINARRIZKO GASTU ENERGETIKOAREN KALKULUA

Oinarrizko gastu energetikoa kalkulatzeko formulak

Harris-Benedict-en formula

Gizonak: $66,47 + (13,75 \times \text{Pisua}) + (5 \times A) - (6,76 \times \text{Adina})$

Emakumeak: $665,1 + (9,6 \times P) + (1,85 \times A) - (4,68 \times \text{Adina})$

P: pisua kg-tan; A: altuera cm-tan; Adina urtetan.

OMEren formulak

Adina	Emakumeak	Gizonak
18 – 30	$(14,7 \times P) + 496$	$(15,3 \times P) + 679$
30 – 60	$(8,7 \times P) + 829$	$(11,6 \times P) + 879$



OINARRIZKO GASTU ENERGETIKOAREN KALKULUA

**Gastu energetiko totalaren kalkulua 24 orduan
jarduera fisiko nagusiaren araberako faktorea erabiliz**

	Jarduera oso arina		Jarduera arina		Jarduera ertaina		Jarduera trinkoa		Jarduera oso trinkoa	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Faktorea	1,3	1,3	1,6	1,5	1,7	1,6	2,1,	1,9	2,4	2,2

OGE jarduera fisikoaren faktoreaz biderkatuz lortzen da gastu energetiko totala



OINARRIZKO GASTU ENERGETIKOAREN KALKULUA

**Gastu energetiko totalaren kalkulua 24 orduko
jarduera fisiko nagusia eta gorputz-pisua erabiliz**

	Jarduera oso arina		Jarduera arina		Jarduera ertaina		Jarduera trinkoa		Jarduera oso trinkoa	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Sexua	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Kcal/kg/egun	31	30	38	35	41	37	50	44	58	51

OGE jarduera fisikoaren faktoreaz biderkatuz lortzen da gastu energetiko totala

HELDU OSASUNTSUAREN DIETETIKA ETA NUTRIZIOA



4- MAKRONUTRIENTEAK



4- MAKRONUTRIENTEAK

- Inkesta dietetikoaren arabera mende baldeko dietan
 - Karbohidratoak %35-70
 - Lipidoak %20-35
 - Proteinak %15-25
- Garunaren funtzionamendurako behar dena baino karbohidrato gehiago
- Makronutriente esentzialek ekarpen energetikoaren zati oso txikia



4.1- Lipidoak helduaren nutrizioan

- ENERGIA JATORRI GARRANTZITSUENA
 - Bitamina liposolugarriak bertan
 - Mikronutriente batzuen zurgapenean lagundu (karotenoak)
 - Gantz-azido esentzialak
 - Gantz-azido esentzialen kontsumoaren desorekak dakartzan osasun arazoak
 - Triglizerido eta kolesterolak osasunean izugarrizko garrantzia



4.1- Lipidoak helduaren nutrizioan

- Zientzia elkarte eta osasun munduko erakundeen gomendio dietetikoak
 - Lipidoek energiaren $< \%35$
 - SFA eta trans erakoek energiaren $< \%10$
 - MUFA energiaren $\%10-20$
 - PUFA energiaren $\%5-10$
 - Kolesterola 300mg/egun



4.1- Lipidoak helduaren nutrizioan

- Ikerketa zientifiko ugari lipidoen ingesta desegokia eta patologia kardiobaskularra erlazionatu
 - Neurri txikiagoan
 - Diabetesa
 - Obesitatea



4.1- Lipidoak helduaren nutrizioan

- Lipidoen ingesten mugak
 - Goiko muga (%35)
 - Aktibitate fisiko altua dutenentzat
 - Lekale, barazki, fruta eta zereal integralekin dieta aberasten duten heldu gazteentzat
 - Beheko muga (%20)
 - Bizitza SEDENTARIOA daramatenentzat



4.1- Lipidoak helduaren nutrizioan


- OMEk dio:
 - Lipido ingesta %15-20 bitartean dauden herrialdeetan ez dutela osasun arazorik
- Dena den...
 - Lipido-ekarpen portzentaia baxuko dietek karbohidrato ekarpen altua dute eta arriskutsua izan daiteke:
 - HDL kolesterolaren jaitsiera gerta daiteke



4.1- Lipidoak helduaren nutrizioan

- Espainiako datuak
 - Lipidoen ekarpena %38
 - %12,5 SFA
 - %20 MUFA
 - %6 PUFA
 - Gomendioak betetzeko SFA portzentaia jaitsi beharko litzateke MUFA portzentaia mantenduz

- SENC: "Sociedad Española de Nutrición Comunitaria"; NIH: "National Institutes of Health" (EEBB); NCEP III: "National Cholesterol Education Program III" (EEBB); MOE: Munduko Osasun Erakundea.
- Gn: gizonak; Em: emakumeak. GA: gantz-azidoak; MASG: gantz-azido monoasegabeak; PASG: gantz-azido poliasegabeak; RDA: gomendatutako ekarpen dietetikoak; KL: kate oso luzeko gantz-azidoak (adibidez, eikosapentaenoikoa eta dokosaenoikoa).
- a: EURODIETek bi ingestio-tarteak onartzen ditu, Europako zenbait estatuk proposatutako araberakoak. Iparraldeko estatuek tarterik txikiak gomendatzen dituzte. Baliorik handienak gizonentzat eta txikiak emakumeentzat dira.
- b: GA eta trans GA bateratzen ditu.
- d: Lipido guztien eta beste gantz-azido guztien kenketa.
- e: jarduera fisiko trinkoa edo moderatua.
- f: anoa 1.350 mL garagardo, 145 mL ardo edo 45 mL edari distilatua gisa sailkatzen da.



	SENC 2000	EURODIET 2000	NIH-NCEP III 2002	OME 2003
Karbohidratoak (kcal %)	> %50	> % (55-75)	% (50-60)	% (55-75)
Elikagai azukredunak	-	< % (10-12)	Moderatu	< % 10
Frutak eta barazkiak (g/egun)	> 550	> 400	Handitu	≥ 400
Lipidoak (kcal %)	≤ % 35	% (20 – 35)	% (20 – 35)	% (15 – 30)
GAS (kcal %)	≤ % 10	% (7 – 10)	< % 7 ^b	< % 10
MASG (kcal %)	% 20	% (10 – 15)	≤ % 20 ^d	
PASG (kcal %)	% 5	%(7 – 8)	≤ % 10	% (6 – 10)
n-6 PASG (kcal %)	-	< (7 – 8)	-	5 (5 – 8)
n-3 PASG (kcal %)	-	-	-	% (1 – 2)
n-3 PASG (g/egun)	-	18:3 2 g + 200 mg KL		
Trans GA	-	< %2		< %1
Kolesterola (mg/egun)	< 350	< 300	< 200	< 300
Proteinak (kcal %)	%13	-	% 15	% (10 - 15)
Proteinak (g/egun) (RDA)	Gn 56 – 59 Em 48 – 57	-	-	-
Zuntza (g/egun)	< 22	> 25	20 – 30	> 25
Jarduera fisikoa	PAL > 1,75	PAL > 1,75	≥ 200 kcal/egun	> 1 ordu/egun ^e
Alkohola (kontsumitzen denean)	250 – 400 mL/egun (ardoa)	24 – 36 g/egun ^a 12 – 24 g/egun	Gn ≤ 2 ^f Em ≤ 1	Ez gomendatua



4.1.1- Lipido aseak, *trans* erako gantz-azidoak eta kolesterola

- SFA eta kolesterol ugariako dietek **KARDIOPATIA ISKEMIKOA** izateko arriskua areagotu
 - Arrisku faktore garrantzitsuena LDL maila altua
 - SFA ingestak LDL maila igo
 - SFA %1 igotzeak LDL %2 areagotu
 - SFA %1 jaisteak LDL %2 jaitsi
 - PALMITIKOAK eta MIRISTIKOAK LDL eta kolesterol totala igotzeko gaitasun handiena
 - ESTEARIKOAK ez du kolesterolean eragiten berehala oleiko bilakatu



4.1.1- Lipido aseak, *trans* erako gantz-azidoak eta kolesterola

- Gantz-azido altuko dietak karbohidratoen metabolismo aztoratzeekin erlazionatuta
 - Intsulinarekiko erresistentzia (II motako diabetesa)
 - Glukosarekiko intolerantzia



4.1.1- Lipido aseak, *trans* erako gantz-azidoak eta kolesterola

- Trans motako UFA
 - LDL maila igo
 - HDL maila jaitsi
 - SFAk baino arrisku aterogeniko handiagoa
 - *Trans* horien iturri nagusia (% 75) elikagai prestatuak dira, landare-jatorriko olio en hidrogenazio industrialaren ondorioz sortzen direnak
 - Margarinak
 - Opil industrialak
 - "*Fast food*"



4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak

- n-6 taldeko gantz-azidoak landare olioetan (cis-linoleikotik eratorriak)
 - Ekilorea
 - Artoa
 - Soja
 - Sojaren eratorri ez hidrogenatuak



4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak

- n-3 taldeko gantz-azidoak
 - Eikosapentanoikoa eta dokosahexanoikoa
 - Arrainean
 - Itsas jatorriko beste olio batzuetan
 - Alfa-linolenikoa
 - Ale-jatorriko olioetan (lihoa...)



4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak

- n-3 eta n-6 taldeko gantz-azidoen propietate onuragarriak
 - Presio arterialean
 - Bihotzaren funtzio fisiologikoetan eta endotelioan
 - Efektu antiaterogenikoak
 - Efektu antiagreganteak
 - Efektu antiinflamatorioak



4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak

- n-3 taldekoak zelulen mintzen osagai dira
 - Nerbio-sistemaren garapena
 - Erretinaren garapena



4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak

- n-3 taldekoek gaixotasun kardiobaskularretan efektu onuragarriak
 - ESKIMALAK
 - Aurkikuntza horien guztien ondorioz, 2004an, *British Medical Journal*-eko artikulu batek gomendatu zien miokardioko infartua jasandakoei, azido eikosapentaenoikoaren eta dokosahexanoikoaren 1g/egun hartzea
 - *American Heart Association* elkarteak oraindik urrunago joan zen, eta paziente haiei arrain gantzatsuekin prestatuko **gehigarriak** kontsumitzeko gomendatu zien; eta gainerakoei ere gutxienez **astean bi aldiz arrain urdina** hartzea gomendatzen die



4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak

- n-3 taldekoek gaixotasun kardiobaskularretan efektu onuragarriak
 - ESKIMALAK
 - EURODIET proiektuak eta SENCek (*Sociedad Española de Nutrición Comunitaria*), gaixotasun koronarioei aurrea hartzeko European adostu ziren ildo nagusiei jarraituz, α -linolenikoaren 2 g eta kate oso luzeko 200 mg hartzea gomendatzen dute (eikosapentaenoikoa eta dokosahexanoikoa)



4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak

- n-3 taldekoek gaixotasun kardiobaskularretan efektu onuragarriak
 - ESKIMALAK
 - α -linolenikoak energiaren % **0,6-1,2** osatzea, eta, horien artean, duten efektu kliniko indartsuengatik, % 10 eikosapentaenoikoak eta dokosahexanoikoak izatea
 - Goiko muga n-6 sailekoekin oreka lortzeagatik eta epe luzera osasunerako segurtasuna ez ezagutzeagatik ipintzen da



4.1.2- Gantz-azido poliasegabeak eta monoasegabeak

- Baina mugak jarri behar dira PUFA ingestioan, zeren ingestioa gehiegizkoa denean:
 - **n-6: %5–10 edo gizonentzat 17 g/egun eta emakumeentzat 12 g/egun**
 - Erradikal askeen kopurua handitu
 - Lipidoen peroxidazioa
 - Funtzio immunitarioan eragin
 - Hemorragiak agertzeko arriskua handitu dezakete
 - Eikosanoideen eta prostaglandinen sintesia eragotzi



4.2- Karbohidratoak helduaren nutrizioan

- Erakundeek karbohidrato kontsumo altua gomendatu
 - %45-65 (100g/egun inguru)
 - Gutxienekoa baino kontsumoa askoz handiagoa dela esan behar da
- Karbohidratoak jasotzeko gomendatutako iturriak
 - Zerealak (batik bat, integralak), lekaleak, frutak, barazkiak, ortuariak eta tuberkuluak
 - Dentsitate energetiko txikia dutelako eta zuntza eta mikronutrientek dituztelako



4.2- Karbohidratoak helduaren nutrizioan

- Azukre sinpleentzat gomendio murriztaileak
 - OMEk %10 gehienez
 - Estatu Batuetako Zientzia Akademiak %25 gehienez



4.3- Proteinak helduaren nutrizioan

- Ingestio egokia: beharrezko aminoazido esentzialen ekarpen egokia bermatzen duena
- Aminoazido esentzial guztiak eta kopuru egokian eskuratzen dituzten elikagaiei **“elikagai proteiko osoak”** edo **“balio biologiko altukoak”** deritze



4.3- Proteinak helduaren nutrizioan

- Herrialde garatuetan oso arraroa desnutrizio proteikoa
 - Logikoagoa dieta hiperproteikoak
 - Osteoporosi arazoak
- Herrialde azpigaratuetan desnutrizio hipoproteikoa ohikoena
- Gomendioa: **0,8 g/kg/egun**
 - Energiaren **%15**, RDAk %35era zabaldu (osasun kalteak ez baitaude frogatuta)



4.3- Proteinak helduaren nutrizioan

- **ESPAINIAN:**

- Proteinek energiaren % 14-15 osatu
- 2/3 animalia-jatorrikoak (batez ere haragia, arraina eta arrautza)

HELDU OSASUNTSUAREN DIETETIKA ETA NUTRIZIOA



5- MIKRONUTRIENTEAK

Mineralen ingestio gomendatua

	Na ¹ (mg/egun)	K ¹ (mg/egun)	Ca ² (mg/egun)	Fe ³ (mg/egun)	I ³ (µg/egun)
Gizonak					
19 – 30	500	2.000	1.000	8	150
31 – 50			1.000		
51 – 70			1.200		
Emakumeak					
19 – 30	500	2.000	1.000	18	150
31 – 50			1.000	18	
51 – 70			1.200	8	

- 1- Beharrizan minimoak . Potasioaren kasuan, ingestio egokiak handiagoak izan daitezke (3.500 mg/egun)
- 2- Ingestio egokiak.
- 3- Ekarpen dietetiko gomendatua (RDA)
- Iturria: *Institute of Medecin* beste datu guztiak www.nap.edu orrialdean aurki daitezke

Bitaminen ingestio gomendatua

	D bitamina ¹ (µg/egun)	Folatoak ² (µg/egun)	B ₁₂ bitamina (µg/egun)
Gizonak			
19 – 30	5	400	2,4
31 – 50	5		
51 – 70	10		
Emakumeak			
19 – 30	5	400	2,4
31 – 50	5		
51 – 70	10		

- 1- Kolekaltziferolaren ingestio egokia
- 2- Folato dietetikoa

Zenbait bitaminaren, elektrolitoren eta mikronutrienteren nutrizio-helburuak

Osagaia	Populazioaren batezbestekoa
Folatoak (elikagaietan)	> 400 µg/egun ¹
Kaltzioa	800 (1.500) mg/egun
Sodioa	<6 (4) g/egun ²
Potasioa	3 g/egun (> 75 mmol/egun)
Burdina	15 mg/egun
Iodoa	150 µg/egun (haurrak: 50; haurdun: 200)
Fluorra	1 mg/L
D bitamina (adindunak)	10 µg/egun

•1- Folatoen ingestioak azido folikoarenak baino handiagoa izan behar du, elikagaien dutenaren % 50 xurgatzen delako.

•2- Hipertentsio arterialaren nazioarteko erakundea. OMEren iritziz, gatzaren ingestioak gehienez 5 g/egun eta sodioarenak 2 g/egun izan beharko lukete



5.1. Sodioa, potasioa eta gaixotasun kardiobaskularrak

- Lipidoen ingesta eta gaitz kardiobaskularren arteko erlazioan dieta mediterraneoak ezaugarri onuragarriak
- Portugalen, Espainian eta Italian daude iktusak eragindako Europako hilkortasun-tasa altuenak
 - Gaixotasuna garatzeko arrisku-faktorerik garrantzitsuena hipertentsio arteriala da
 - Obesitateak, alkoholaren kontsumoak eta jarduera fisikoaren gabeziak handitu dezakete



5.1. Sodioa, potasioa eta gaixotasun kardiobaskularrak

- Hipertentsioa dutenen sodio-ingestioa 70-80 mmol txikituz, presio sistolikoaren jaitsiera 4,8 mm Hg-koa da eta diastolikoarena 1,9 mm Hg-koa
- Finlandian eta Portugalen garatutako zenbait ikerketa-lanek frogatu dute gatzaren kontsumoa jaitsiz lor daitekeela iktusaren eta gaixotasun koronarioaren hilkortasuna txikitzea



5.1. Sodioa, potasioa eta gaixotasun kardiobaskularrak

- Azken gomendioetan gatzaren kontsumoa, bai helduetan bai haurretan
 - **Gehienez 6 g/egun**
 - Kalkulatu da kontsumo horiekin gaixotasun koronarioek sortzen dituzten heriotzak % 16 gutxitu daitezkeela eta garuneko istripu baskularren ondorioz sortzen direnak % 22
 - Gainera, hipertentsio arterialaren aurkako tratamenduen erabilera % 50 urrituko litzateke



5.1. Sodioa, potasioa eta gaixotasun kardiobaskularrak

- Potasioaren ingestioaren eta presio arterialaren arteko lotura alderantziz proportzionala da
 - Gehigarrien erabilerak, zenbait ikertzailek diotenez, presio arterialean jaitsierak sortzen ditu
 - Ez dago oinarri zientifiko kontrastaturik



5.2. Burdinaren ingestioa

- Azken hamarkadetan, gero eta sideropenia-kasu gehiago herrialde garatuetan
 - Nerabeetan
 - Emakume barazkijaleetan



5.2. Burdinaren ingestioa

- Hemo burdinaren (% 15-35) absortzioa ez-hemo burdinarena (% 2 – 20) baino handiagoa
 - Landare-jatorriko elikagaiek dituzten fitatoek eta polifenolek burdinarekin gatz ez-disolbagarriak osatzen eta absortzioa oztopatzen dute
 - Kafearen eta tearen taninoek ere eragin inhibitzailea
 - Sojak ere eragin inhibitzailea



5.2. Burdinaren ingestioa

- Hemo burdinaren (% 15-35) absortzioa ez-hemo burdinarena (% 2 – 20) baino handiagoa
 - **C bitaminaren gehikuntzak (75-100 mg/egun) ez-hemo burdinarenabsortzioa hobetu**
 - Frutek eta barazkiek dituzten beste azido batzuek ere antzeko efektua (zitrikoa, malikoa, tartarikoa, laktikoa)

5.3. Azido folikoaren ingestioa

- Haurdun gelditzeko aukera daukaten emakumeek 400 μg /egun hartzea gomendatzen dute nazioarteko erakundeek
 - Fetuan hodi neuraleko arazoak ekiditeko



5.3. Azido folikoaren ingestioa

- Odoleko homozisteinaren maila handitzea gaixotasun koronarioen arrisku-faktorea da
 - Azido folikoak eta kobalaminak homozisteinaren metilazioan parte hartzen dute metionina sortzeko
 - Estatu Batuetan zerealak folatoekin gotortu



5.3. Azido folikoaren ingestioa

- Azido folikoaren ingestioa txikiegia da:
 - Adindunetan
 - Heldu gazteetan
 - Zenbait botika erabiltzen dutenetan (anobulatorioak, barbiturikoak eta abar.)



5.3. Azido folikoaren ingestioa

- Folatoen ingestio aproposa lortzeko estrategiarik egokienak
 - Oinarrizko elikagaiak (zerealak adibidez) gotortzea
 - Elikagai-iturrien (hosto berdeko barazkiak, ogia, frutak, fruitu lehorrak, gibela) kontsumoa handitzea
 - Haurdunaldian edo haurdun gelditzeko aukera dagoenean gehigarriak hartzea



5.4. Iodoaren ingestioa

- Iodoaren gabezia, gaur egun oraindik, ohikoa da **Europa erdialdeko eta hegoaldeko eskualde menditsuetan**
- Espainiako zenbait eskualdetan, haurren % 37-48k bozia dute, eta emakume haurdunen ingestioa ez da gomendioen erdira heltzen
- Hala eta guztiz, Europako estatuen osasunerakunde publikoek ez dute gatz iododunaren erabilera unibertsala lege egin, nahiz eta merkea izan eta haren efektu onuragarrien ebidentzia zientifikoa maila altukoa izan



5.5. Kaltzioaren eta D bitaminaren ingestioa

- Desmineralizazioa eragiten duten faktore dietetikoak:
 - Desnutrizio kaloriko-proteikoak gihar-masaren galera bultzatzen du
 - Dieta hiperproteikoak kaltzioaren gernu-galerak areagotzen ditu
 - Gatzaren ingestio altuek kaltzioaren iraizpena handitzen dute



5.5. Kaltzioaren eta D bitaminaren ingestioa

- Gomendioak eztabaidagarriak:
 - Menopausiara iritsi ez diren emakumeak eta menopausian tratamendu farmakologikoa (hormona-terapia ordezkatzaila) dutenentzat **1 g/egun**
 - Menopausian tratamendu gabe daudenetan eta 65 urtetik gora **1,5 g/egun**



5.5. Kaltzioaren eta D bitaminaren ingestioa

- Kaltzio zurgapenean eragozpenak
 - Landare-jatorriko iturrietan, beste osagai batzuen presentziak (oxalatoak, fitatoak, zuntza) kaltzioaren heste-absortzioa oztopatu
- D bitaminaren gabezia azpiklinikoek osteoporosia garatzeko arriskua handitzen dute
 - Bitaminaren gordekinak txikituz doaz adinarekin, batez ere neguan eta Europako iparraldeko herrialdeetan, eguzki-argiaren faltaren ondorioz
 - Ez dago oinarri zientifikorik osagarriak gomendatzeko



5.6. Antioxidatzaileen ingestioa

- Zahartze-prozesua eta zenbait gaixotasun arrunt –minbizia, ateriosklerosia eta begi-lausoak– zelulen oxidazioarekin loturik
 - E bitamina
 - β -karotenoak
 - C bitamina
 - Selenioa

5.6. Antioxidatzaileen ingestioa

	A bitamina ¹ (µg/egun)	E bitamina ² (mg/egun)	C bitamina (mg/egun)	Se ³ (µg/egun)
Gizonak				
19 – 30	900	15	90	55
31 – 50				
51 – 70				
Emakumeak				
19 – 30	700	15	75	55
31 – 50				
51 – 70				

- Erretinolaren baliokide 1= 1 µg erretinol = 6 µg β-karoteno.
- **2- α-tokoferola.**
- **3- Ekarpen dietetiko gomendatua**



5.6. Antioxidatzaileen ingestioa

- LDL-lipoproteinen gaitasun aterogenikoa handitu egiten da oxidatzen, azetilatzen edo glikosilatzen direnean
 - Gantz-azido poliasegabetan dieta aberatsa egiten duten populazioek antioxidatzaileen kontsumoa handitu behar
 - Ikerketek gaixotasun koronarioak izateko arriskua murrizten dela frogatu



5.6. Antioxidatzaileen ingestioa

- C bitaminaren eragin antioxidatzailea minbiziarekin lotu
 - C bitaminak nitritoek osa ditzaketen nitrosamina kantzerigenoen eraketa inhibitu
- Erretinolak bai karotenoideek gaitasun antioxidatzailea
 - α -tokoferolarekin ekintza sinergikoak sor ditzakete, eta haren eragin antioxidatzailea handitu



5.6. Antioxidatzaileen ingestioa

- Selenioak eta E bitaminak antzeko efektuak
 - Estres oxidatiboaren aurkako organismoaren defentsan parte hartu



Dietetika eta Nutrizioa haurdunaldian

11. GAIA

DIETETIKA OROKORRA ETA APLIKATUA

**Giza Elikadura eta Dietetikako Gradua
3. kurtsoa**



Dietetika eta Nutrizioa haurdunaldian

1. SARRERA

2. OINARRI FISIOLÓGIKOAK

2.1. Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak

2.2. Digestioa

2.3. Barne-giroko ezaugarri fisiologikoak

3. ELIKADURA AMAREN OSASUNEAN ETA UMEKIAREN GARAPENEAN

3.1. Elikaduraren garrantzia umekiaren garapenean

3.2. Pisuaren eboluzioa haurdunaldian

4. INGESTIO GOMENDATUAK HAURDUNALDIAN

4.1. Energia

4.2. Proteinak

4.3. Mineralak

4.4. Bitaminak

5. ELIKADURA ETA NUTRIZIO ARLOKO EZAUGARRI BEREZIAK HAURDUNALDIAN




11. GAIA: Helburuak

1. Haurdunaldian, organo, sistema eta ehunetan gertatzen diren aldaketa endokrino, fisiologiko eta biokimiko garrantzitsuenak ezagutu.
2. Haurdunaldiko elikaduraren eta nutrizioaren garrantzia eta nutrizio-egoeraren balorazioa ezagutu.
3. Haurdunaldiko energiaren eta nutrienteen beharrianak eta gomendioak azaldu.
4. Nutrienteen eta energiaren ingestio desegokiek ekar ditzazketen ondorioak ezagutu.



Sarrera

ESKAKIZUN NUTRIZIONALAK



Energia beharrianak
Makronutrienteen beharrianak
Bitamina hidrosolugarri gehienak
Mineralak: burdina, iodoa, zinka,
magnesioa, selenioa



Ama



Umekia



Umetokia + esnea

HAURDUNALDIA



EDOSKITZAROA

Oinarri fisiologikoak

Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak

Emakumeak aldaketak pairatu bere organismoan:

1. Umekiaren hazkuntza eta garapena
2. Amarengan emandako aldaketak bermatu
3. Emakumearen prestakuntza edoskitzarorako

Aldaketa nabarmenak:

- Sistema endokrinoa
- Sistema hematologikoa
- Sistema kardiobaskularra
- Digestio sistema
- Giltzurrunen sistema

Oinarri fisiologikoak

Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak

Hormonen jario aldaketak:

1. Gonadotropina korionikoa
2. Laktogeno plazentarioa
3. Hormona esteroideoak (estrogeno, progesterona eta kortisola)
4. Beste batzuk:
 - tiroxina eta triiodotiroxina
 - paratormona
 - D₃ hormona


Oinarri fisiologikoak

Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak

Hormonen jario aldaketak:

1. Gonadotropina korionikoa:

- Umekia endometrioan ezarri → [hCG] igo
- [hCG] gorena → 8-10.asteen
- Zenbait hormona esteroideoen jarioa



2. Laktogeno plazentarioa:

- Lipolisia ↑
- Nutrienteak umetokira
- Intsulinareen antagonista
- Laktogeno plazentarioa + prolaktina → bularren hazkuntza

Oinarri fisiologikoak

Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak

Hormonen jario aldaketak:

3. Hormona esteroideoak:

- Estrogenoak:
 - Umetokiaren tamaina eta gordailuak ↑
 - Hipofisian → prolaktina
 - Ugatz guruinen hazkuntza. Esne jarioa
- Progesterona
 - Ugatz-lobuluen garapena
 - Esne-jarioa inhibitu
 - Katabolismo proteikoa
- Kortisola
 - Glukoneogenesisia



Oinarri fisiologikoak

Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak

Hormonen jario aldaketak:

4. Beste batzuk

- Tiroxina eta triodotiroxina: hipertiroidismo fisiologikoa
- Paratohormona:
 - Giltzurruna
 - Hezurra
 - Heste mukosa
- D₃ hormona: Kaltzioaren xurgapena


11. GAIA

Oinarri fisiologikoak. Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak

LIPIDOEN METABOLISMOA

**Hormona esteroideoak
(Estrogenoak, Progesterona)
Intsulina**


Lipidoen sintesia (+)
Adipozitoen hipertrofia (+)
Lipolisia (-)



Gantz-masaren metaketa

11. GAIA

Oinarri fisiologikoak. Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak




Metabolismoaren ikuspuntu orokorra...

11. GAIA

Oinarri fisiologikoak. Aldaketa endokrinoak eta ezaugarri metaboliko bereziak

1. eta 2.



hiruhilabeteetan

ANABOLISMOA


↑ progesterona y estrogenoak →

↑ **Intsulinarekiko sentikortasuna** →

Glukogeno, TG, proteina sintesia

3.hiruhilabetean

(28-36 aste)



KATABOLISMOA

↑ laktogeno plazentarioa, prolaktina,

kortisol, glukagoia → ↑ **Intsulinarekiko**

erresistentzia → Glukogenolisia,

lipolisia, proteolisia



11. GAIA

Oinarri fisiologikoak. Digestioa

- ✓ Listuaren jarioa txikitzen da.
- ✓ Atzeratu egiten da nutrienteen hesteko absortzioa.
- ✓ Nutrienteen absortzioa hobesten da. }
- ✓ Nutrienteen absortzioa handitzen da. } **Denbora ↑ hestean**
- ✓ Kolonean, uraren absortzioa handitzen da.
- ✓ Hesteko hormonen eta peptidoen mailak aldatu egiten dira (adibidez, kolezistokinina).

11. GAIA

Oinarri fisiologikoak.

Barne-Giroko ezaugarri fisiologikoak.

1. Gorputz konposizioa: - gantz ehuna eta muskulua ↑
2. Odol-bolumena: - bolumen-plasmatikoa, %45-50
- globulu gorrien masa zelularra, %15-20
3. Odol-konposizioa: - hemoglobina igo, baina “diluzio fisiologikoa”
- leukozitoak, fibrinogenoa eta koagulazio faktore gehienak ↑
- albumina kontzentrazioa ↓
- hiperlipidemia fisiologikoa
4. Organoak: - bihotza %12 handitu
- diametro torazikoa 2 cm
- giltzurrun-sistema

11. GAIA

Elikaduraren garrantzia umekiaren garapenean

Umekiaren hazkuntza eta garapena egokiak izateko...

- ➔ Amaren hasierako nutrizio-egoerak egokia izan beharko luke
- ➔ Haurdunaldian zeharreko nutriente eta energia ekarpen egokiak

**Helburua: umekiari behar dituen
nutrienteak pasatzea kantitate egokian**

11. GAIA

Pisuaren eboluzioa haurdunaldian

a) Haurdunaldiaren berezko osagaiak

b) Amaren ehunen hazkuntza

	P (g)	N(g)	Gantza(g)	K(mEq.)
Umekia	3.400	70	440	154
Plazenta	650	16	4	42
Lik.amniotikoa	800	0.5	0.5	3
Umetokia	970	27	3.9	50
Ugatza	405	13	122	35
Odola	1.250	22	19.6	28
Zelula arteko likidoa	1.680			8
Guztira	9.155	148.5	480	32
IKUSITAKOA	12.500	(ALDEA=3.345)		

11. GAIA

Pisuaren eboluzioa haurdunaldian

a) Haurdunaldiaren berezko osagaiak

b) Amaren ehunen hazkuntza

	P (g)	N(g)	Gantza(g)	K(mEq.)
Umekia	3.400	70	440	154
Plazenta	650	16	4	42
Lik.amniotikoa	800	0.5	0.5	3
Umetokia	970	27	3.9	50
Ugatza	405	13	122	35
Odola	1.250	22	19.6	28
Zelula arteko likidoa	1.680			8
Guztira	9.155	148.5	480	32
IKUSITAKOA	12.500	(ALDEA=3.345)		

11. GAIA

Pisuaren eboluzioa haurdunaldian

a) Haurdunaldiaren berezko osagaiak

b) Amaren ehunen hazkuntza


	P (g)	N(g)	Gantza(g)	K(mEq.)
Umekia	3.400	70	440	154
Plazenta	650	16	4	42
Lik.amniotikoa	800	0.5	0.5	3
Umetokia	970	27	3.9	50
Ugatza	405	13	122	35
Odola	1.250	22	19.6	28
Zelula arteko likidoa	1.680			8
Guztira	9.155	148.5	480	32
IKUSITAKOA	12.500	(ALDEA= 3.345)		

11. GAIA

Pisuaren eboluzioa haurdunaldian

a) Haurdunaldiaren berezko osagaiak

b) Amaren ehunen hazkuntza



Pisuaren hazkuntza ez da kte-a:

< 20.astea → 3.5-4Kg

> 20.astea → 400/500 gr/aste

11. GAIA

Pisuaren eboluzioa haurdunaldian

Aldez-aurretiko pisua desegokia denean...

<u>Pisua</u>	<u>Edoskitze naturala</u>	<u>Gomendioa</u>
✓ %120		→ 7-8 Kg (300 g/aste)
✓ %100	EZ	→ 10 Kg (350 g/aste)
✓ %100	BAI	→ 12 Kg (400 g/aste) 2.eta 3. hiruhilabeteak
✓ %90 (nerabea)		→ 14-15 Kg (400-500 Kg/aste)

* Bikiak: 18kg (650g/aste, azken 20 astetan)



11. GAIA

Pisuaren eboluzioa haurdunaldian

Pisu-irabaztea desegokia denean...

- ✓ Umekiaren pisu desegokia
- ✓ Erditzerakoan: arazo gehiago izateko arriskua
- ✓ Ume eta amaren hilkortasun tasa
- ✓ Gaixotasunak: hipertentsioa, diabetea (pisu↑) ume goiztiarra, pisu eskasa (pisu↓), etab.

11. GAIA

Pisuaren eboluzioa haurdunaldian

Cuadro 7-1. Aumentos de pesos recomendados para las mujeres embarazadas con base en el índice de masa corporal (*body mass index*, BMI)

CATEGORIA DE PESO BASADA EN EL BMI*	AUMENTO DE PESO TOTAL†		AUMENTO DURANTE EL PRIMER TRIMESTRE		AUMENTO SEMANAL DURANTE EL 2º Y EL 3º TRIMESTRES	
	lb	kg	lb	kg	lb	kg
Peso subnormal (BMI < 19.8)	28-40	12.5-18	5	2.3	1.07	0.49
Peso normal (BMI = 19.8-26)	25-35	11.5-16	3.5	1.6	0.97	0.44 10,56
Sobrepeso (BMI > 26-29)	15-25	7-11.5	2	0.9	0.67	0.3
Obesidad (BMI > 29)	por lo menos 15	6				

(Datos obtenidos del Subcommittee on Nutritional Status and Weight Gain During Pregnancy and Subcommittee on Dietary Intake and Nutrient Supplements During Pregnancy, Food and Nutrition Board, National Academy of Sciences. Nutrition During Pregnancy. Parts I and II. Washington, DC: National Academy Press, 1990.)

* BMI métrico = peso (kg)/estatura (m)². Véase apéndice 20.

† Las adolescentes y las mujeres negras deberán tratar de lograr aumentos en el extremo superior del rango recomendado. Las mujeres de corta estatura (< 1.57 m) tratarán de lograr aumentos en el extremo inferior del rango.

Embarazo gemelar



16 – 20

= embarazo normal (según IMC)

0.650


Pisuaren gehiegizko handitzea → Heriotza arriskua

Pisuaren gutxiegizko handitzea → Desnutrizioa



KASU PRAKTIKOAK

**Haurdunaldiko pisu igoera
kalkulatu emakume
bakoitzaren ezaugarrien
arabera**



1go kasua

Haurdun dagoen emakumea

Adina: 26 urte

Pisua: 60 kg

Altuera: 1,68 m

3 hilabetetara? 9 hilabetetako haurdunaldian

2. kasua

Haurdun dagoen emakumea → bikiak


Adina: 30 urte

Pisua: 65 kg

Altuera: 1,65 m

7 hilabetetako haurdunaldia? 9 hilabete balira?

1. GMI kalkulatu
2. Irabazitako pisua kalkulatu
(ikusitako kalkuluaren arabera)



3. kasua

Haurdun dagoen emakumea → Nerabea

Adina: 17 urte

Pisua: 50 kg

Altuera: 1,68 m

3 hilabetetara? 8 hilabetetako haurdunaldian

4. kasua

Haurdun dagoen emakumea

Adina: 25 urte

Pisua: 80 kg

Altuera: 1,57 m

9 hilabetetako haurdunaldian



11. GAIA. Gomendatutako ingestioak

Energia

Berezko osagaiak eratu

Amaren ehunen hazkuntza 68.000 Kcal

E. Metabolizagarria eskuratzeko (%10) 6.800 Kcal

74.800 Kcal

1º Hiruhilabetea: gantz-ehunak

**2º eta 3º Hiruhilabeteetan: umeki, plazenta eta
amaren ehunen hazkuntza**

11. GAIA. Gomendatutako ingestioak

Energia

Berezko osagaiak eratu

Amaren ehunen hazkuntza

68.000 Kcal

E. Metabolizagarria eskuratzeko (%10)

6.800 Kcal

74.800 Kcal

	Energia (kcal)
1. hiruhilekoa	--
